



ETAren Agiria Euskal Herriari

Euskadi Ta Askatasunak, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, agiri honen bidez gure herriak bizi duen une garrantzitsu honetan bere hausnarketaren berri eman nahi dio Euskal Herriari:

Azken hileotako bilakaerak eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian burutu diren hauteskundeak emaitzek bereziki, zabaltzen ari den aro berrian mugarririk bat ezarri dute, Euskal Herriaren etorkizunari ekiteko ilusio eta itxaropenerako tokia dagoela erakutsiz. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko eta gatazka konponbidean jartzeko egitasmoak jaso duen babesa batetik, eta ezker abertzalearen ilegalizazioaren babesean gauzatu diren bazterketa eta ordezkari-tza instituzionalaren bahiketa udal eta foru aldundietan gainditze bidean jarri izana bestetik, horren adierazle dira. Horretarako ekarpen handia egin dute euskal eragile eta herritar ugariak.

Hori esanda, urtarrileko ekimenetik sei hilabete pasa direnean, Euskal Herriko egoeraren gaineko hausnarketa pausatua eskaini nahi du ETAK. Egungo egoera politikoa ezin baita ulertu aurretik, urte luzeetan zehar, herri honek garatu duen borroka eredu-garria kontuan hartu gabe.

Zapalkuntzaren aurreko erresistentzian eta nazio eraikuntzan oinarritu borroka luze eta oparoa

Euskal Herria hiltzorian zegoela sortu zen ETA, errepresioari erantzuteko eta Euskal Herriaren defentsa irmoa egiteko helburuarekin. Borroka eskaintza honek eta berarekin batera eratu zen proiektu independentista eta sozialistak, Euskal Herriaren aldeko indarrak biltzeko aukera eskaini zuten. Zapalkuntzarik bortitzenak eragiten zuen etsipen eta zenbait indar abertzalearen epeltasunak hedatzen zuen esperantza ezaren aurrean, Euskal Herriaren beharrei begiratzen zien egitasmo eta berau gauzatzeko bidea bazegoela erakutsi zuten.

Orduz geroztik, ezker abertzaleak Euskal Herriaren askatasuna lortu arteko borrokari eutsi dio, askapen mugimendua eta Euskal Herria bera Espainia eta Frantziaren amaraunean irenstea helburu zuten amuei uko eginez.

Frankismoaren ondorengo erreforma politikoaren aurrean haustura demokratikorako eskaintza egin zuen ezker abertzaleak, indar abertzale guztiek Euskal Herriaren eskubideen aldeko estrategia bateratua izan genezan. Tamalez, ez zen lortu. Batzuk burujabetza asmoa Espainiako marko autonomikoan asetzerik bazegoela irizita. Beste batzuk alderdi interesak hobetsi zituzten, kudeaketa autonomikoaren onurak eskuratuz Euskal Herriari bizkarra ematearen truke.

Horrela, ezker abertzaleak bere proiektu politikoa lantzeaz gain, Euskal Herriaren ukazioa eta zatiketa borrokatzearen eta eskubideen defentsa egitearen ardura osorik bereganatu zuen. Baita kemenez egin ere. Errepresio latza jaso arren ez da kikildu. Eraso guztiei aurre egin die eta inposizio saio orori mugak jarri dizkio. Horrekin batera, gatazkaren gakoak diren lurraldetasuna eta erabakitze-erako eskubidearen aitortza aldarrikatu eta elkarrizketa eta negoziazioaren bidezko konponbidea ahalbidetuko zuten proposamenak egin ditu, Euskal Herriaren benetako askatasun eta bake agertokia eraiki asmoz.

Ezker abertzalea zeregin horretan luzaro bakardadean aritu da. Haatik, herriaren txertaturik egin du aurrera. Independentismoa zokoratzeko hamaika saio egin arren, herritarrekin batera lan eginez, herritik arnasberritu da etengabe.

Zapalkuntzari erresistentzia gogorra erakutsi diogu, baina gurea ez da erresistentzia hutsa izan. Herri egiten gaituzten zutoinen eraikuntzan aritu gara beste herritar ugariarekin batera, euskararen bultzadan, kulturaren garapenean, hezkuntza eredu propioaren alde, jendarte eredu berri bat sortuz. Era berean, Euskal Herriaren zatiketa instituzionalari proiektu nazionala landuz eta sare sozial eta kulturalak ehunduz erantzun diogu.

Borroka honek guztiak, ondorengo ondorio politikoak ekarri ditu:

- Euskal Herria bizirik dago, Frantzia eta Espainiaren menpeko asimilazio politiko, sozial eta kulturean desagerrarazteko estrategia bortitza pairatu duen arren.

- Euskal Herriari inposatutako marko zatikatzailea ez dute egonkortzerik izan. Etsi gabeko borroka etengabeko higadura eragin dio, Euskal Herriaren beharrak asetzeko aukera antzua dela erakutsiz.
- Gatazkaren konponbide demokratikoaren aldeko jarrera nagusi da euskal jendartean. Gatazkaren konponbidea elkarrizketa eta negoziazioa bidez eta lurraldetasuna eta erabakitze eskubidearen aitortzaren eskutik etorriko dela euskal jendartearen gehiengoaren ustea eta nahia da.
- Egun, Espainia eta Frantziaren menpeko proiektuen aurrean, independentzia ageri da egiazko alternatiba bakar gisa.

Duela bi urtetik hona, baldintza horiek askapen prozesuaren zutabe erabakigarri bilakatzeko hausnarketa sakona burutu du ezker abertzaleak. Horrekin batera, estatuek askapen prozesuan behartu nahi zuten blokeo egoera hausteko estrategia eraginkorra finkatu beharra zegoen.

Hausnarketa hartan, autokritikak toki garrantzitsua hartu zuen, edozein mugimendu iraultzaileari dagokion gisan, gurea ez baita akatsik gabeko bidea izan. Baina egungo egoeraren gako urte luzeetako borrokan asmatu izanean dago, zapalkuntzari erakutsitako erresistentzian, nazioaren eraikuntzan eta, horren ondorioz, eskuratutako lorpen politikoetan. Horrek eman digu askapen prozesuan urrats berriak emateko aukera eta hartzen ari garen norabidearen iparra erakusten digu.

Esan beharra dago, azkenik, eginiko bidea ez dela ez erakunde soil baten, ez pertsona gutxi batzuen borondatearen eta argitasunaren emaitza. Euskal emakume eta gizon askoren ahalegin, sakrifizio eta eskuzabaltasunak, auzolan zabal batek osatzen du askapen prozesuaren ibilbide kolektiboa, askok zeregin horretan bizia eman eta galdu dutelarik.

Egungo egoera: aro berria zabaltzen ari gara

Ezker abertzalearen hausnarketa ez zen ariketa teoriko hutsa izan. Berarekin batera, ausardiaz eta erabakitaz, egoera iraultzeko eta aro berria zabaltzeko inizatiba hartu zuen. Hor kokatzen dira hilabeteotan egin diren proposamenak, burutu diren herri mobilizazioak, ETAk abiatu dituen ekimenak edota sektore ezberdinen artean ehundu diren aliantzak eta garatu den elkarlana.

Ezker abertzalea indarberriturik

Ezkerreko independentismoa akabatzea lehentasunezko helburua izan da Espainia eta Frantziako agintarientzat. Urtetan zehar molde errepresibo ororekin saiatu dira. Ezker abertzalea, alabaina, ez da makurtu. Ezker abertzaleko gizon-emakumeek baldintzarik zailenetan kemenez eta eskuzabaltasunez erantzun dute eta beren jardun politikoa atxiloketa, tortura eta espetxearekin ordaindu arren, lepoan hartu eta aurrera segitu dute. Horren ondorioz bizirik dago egun ezker abertzalea eta, berarekin batera, herri honen askatasun aukera.

Ez aspaldi, blokeoari eutsi nahi ziotenek, ezker abertzalearen porrota iragarri zuten. Zapaltzailearen harrokeriatik begiratuta, Espainiako ustezko demokrazian barneratzeko aukera ikusi nahi izan zuten ezker abertzalearen urratsetan. Urtetako jazarpen latzaren ondoren ezinduta eta etsita egongo zela sinetsita, makilakadaz josita behingoz artegian sar araziko zutelakoan.

Itxikeriari eta errepresioari eutsi ez ezik, maltzurkeriaz aritu dira, ezker abertzalearen sinesgarritasuna kaltetzeko eta barne zatiketa elikatze asmo zitalarekin. Baina oztopo eta eraso aurrean, ezker abertzalearen apustuari irmoki eusteko erabakitaz jendartearen aurrean sinesgarritasuna eman dio lehenik, atxikimendu zabala biltzeko ondoren.

Blokeo estrategia pitzatzen hasiak gara

Estatuek askapen prozesua eta aldaketarako aukera blokeatzeko estrategia oso bat eraiki dute azken urteotan. Ezker abertzalearen zokoratzearekin batera, Euskal Herriaren aldeko indarrak biltzea ekidin nahi zuten, abertzaleak barreiatu eta eskaintza bateraturik gabe jardun genezan. Bestalde, gatazkaren konponbide demokratikorako aukera itxita, Euskal Herria eta Frantzia eta Espainiaren arteko gatazka desitxuratu nahi zuten, estatuak eta ezker abertzalearen arteko konfrontazio hutsa bilakatu.

Hilabeteotan, ezker abertzalearen inizatibaz eta beste sektore batzuetan ere egin den hausnarketaren ondorioz, egoera erabat aldatu da. Egun, burujabetzaren aldeko indarrek bere protagonismoa eta eraginkortasun politikoa berreskuratu dute, herri sektore zabaletan aldaketarako ilusioa eta esperantza pitzuz eta indar metarako aukera eskainiz.

Honekin batera, ETAk eman dituen urrats sakonak lagundurik, gatazka politikokoaren konponbidearen aukera eta premia indarrez plazaratu da Euskal Herrian zein nazioartean. Euskal eragile ugari izenpetu zuten Gernikako Akordioa eta bertan jasotzen den oinarrizko ibilbide orria konponbide demokratikorako ukazinezko

erreferentzia bilakatu da.

Euskal jendartean gero eta ulergaitzagoa egiten da estatuen jarrera. Itxikeriarekin eta errepresioarekin tematzeak inoiz baino zilegitasun gutxiago du Euskal Herrian. Horregatik esan dezakegu Euskal Herria eta Espainiako estatuaren arteko distantzia areagotu egin dela: konponbideari uko egin eta urratsak ez emateak, Euskal Herrian kostu politikoak eragiten dituela.

Zentzu horretan, atxiloketa, tortura, euro-agindu edota epaiketen kontra eta euskal preso politikoen eskubideen defentsan burutu diren mobilizazioak azpimarratu behar dira. Zeresanik ez, ilegalizazioari eusteko azken saiakerak jaso duen erantzun zabala, Espainiaren menpeko sektorearen lerroetan ere kontrakotasuna agertzea behartu duena. Estatuak oraindik errepresioari eusten badiote ere, gero eta herri erantzun zabalagoa aurkitzen dute parez pare, gero eta kontraesan gehiago itxikerian jarraitzeko. Eta dagoeneko galdu dute Euskal Herriko egoera politikoaren gaineko aginte makila.

Illegalizazioa indargabetze bidean, herri xumearen ahotsa udaletxeetan

Ezker abertzalearen antolakundeek ilegalizazioak eta, oro har, herri mugimenduaren aurkako erasoek ezaugarritu dute azken hamarkadako estatuen estrategia errepresiboa. Eskubide zibil eta politikoen zangopilatze masiboren urteak izan dira. Estrategia horrek "alderdien legea" deiturikoarekin katebegi berri bat erantsi zuen. Espainiako estatuak Euskal Herriari indarrez inposatu zion lege arrotz harekin ezker abertzalearen ekimen politikoa baldintzatu ez ezik, hauteskunde lehiatik kanpo eta ordezkaritza instituzionalik gabe uztea bilatzen zuen.

Burutu berri diren hauteskundeak baldintza ez demokratikoetan burutu dira beste behin ere. Euskal Herria ukatua eta indar armatuen mehatxupean egoteaz gain, ezker abertzalearen hautua zen Sorturen aukera legez kanporatuta eta hamarnaka mila herritar hautagai izateko aukera debekatua burutu baitira hauteskundeok. Eta hori izango da, besteren artean, epe motzeko erronka nagusienetakoa: eskubide zibil eta politikoak ezartzea Euskal Herrian.

Hala eta guztiz ere, harrotasunez esan dezakegu Euskal Herriak ilegalizazioaren bataila politiko eta ideologikoa irabazi egin duela. Euskal Herriak strategiaren helburuak indargabetu dituela.

Hauteskunde hauen emaitzek egoera berri bat iragartzen dute. Hala uler daiteke, Bildu koalizioak herritarren parte hartzea bultzatzeko eta ordezkaritza instituzionala herri boterea bilakatzeko egin duen zinari erreparatuz.

Aldaketa politikoa eta soziala gauzatzeko aukera gorpuzten ari da

Euskal Herrira aldaketa sakonak datozen ustea gero eta hedatua dago euskal jendartean. Herritarren aktibazioa eta presioarekin iraganeko erresistentziak hautsi eta etorkizunari askatasunez ekiteko aukera ireki daitekeen ustea hedatzen ari da egunetik egunera.

Burujabetzaren aldeko esparru ezkertiarren metaketak ilusio eta ikusmira berri bat ekarri du Euskal Herrira. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko egitasmoak euskal jendartearen babes zabala jaso ez ezik, berau egikaritzeko tresneria berria eskuratu du. Gaur, agertoki demokratikoa zabaltzeko egin beharreko bidean eta nazio eraikuntzari eta euskal langileen defentsari ekiteko baliabide gehiago du Euskal Herriak.

Euskal Herrian eman beharreko aldaketa politikoa aldaketa sozialen eskutik lotua doa ezinbestean, egungo krisi ekonomikoak are nabarmenago erakusten duenez. Azken hilabeteetan, Espainiako eta Frantziako gobernuek erreforma eta neurri larriak hartu dituzte eta, orokorrean, kapitalismoaren eta banketxeen mesedetan oinarrituriko politikak ari dira garatzen. Bitartean, herritarren egoera egunetik egunera makurragoa bilakatzen da: langabeziaren areagotzea, prekaritatea eta lan baldintzen okertzea, kaleratzeak, zerbitzu publikoen murrizketa...

Euskal sindikalgintza aldaketa horren erreferentzia izaten ari da. Greba orokorraren ondotik, Madrilen egindako mobilizazio jendetsuak edota Maiatzaren Leheneko deialdi bateratuak, aldaketa garaiotan euskal langileriaren aktibazioan urrats berri ekarri dute. Berdin sektore ezberdinetan aitzinaturiko borrokek. Neurri murriztaileei aurre egitetik harago, konfrontaziorako aukera eta beste eredu baterako alternatibak eskaintzearen perspektiba eraikitzen ari da pixkanaka.

Aurrera begira: herriaren bultzadaz nazio eraikuntza, askatasuna eta bakea

Herria eraikitzeko premia

Orain artean, Euskal Herriak urtetako borrokaren bitartez eskuratu dituen lorpenak eta azken hilabeteotan eman ditugun urratsak nabarmendu ditugu. Ez dira txikiak izan. Haatik, horrek ezin du ahantzarazi Euskal Herria, oraindik orain, herri zapaldua dela. Arestian Euskal Herria bizirik iraunarazi dugula esan badugu ere, herio geldoaren arriskuak bizirik dirau, bi estatu boteretsuen erasoen artean.

Hortaz, hurrengo urteotan erasoei aurre egiteaz batera Euskal Herriaren egituratzean urratsak ematea eta herriaren garapen politiko, sozial, kultural eta ekonomikoa bermatzeko baliabide berriez hornitzea funtsezko zeregina izango da Euskal Herrian sinisten dugunontzat.

Herri aktibazioan sakondu, ukazioaren harresia eraitsi arte

Herritarrek hitza hartu eta dagokien protagonismoa eskuratzearekin batera, egoera politikoa baldintzatzeko eta mugiarazteko gaitasuna erakutsi da. Horrekin, errepresioa eta ukazioaren amaiera eta Euskal Herriaren eta erabakitze eskubidearen aitortza geroz eta sektore zabalagoen metaketatik eta geroz eta presio bide eraginkorragoen aktibatzeetik etorriko dela agerian gelditu da.

Bakea eraikitzea, guztion eginkizuna

Hauteskundeak igaro eta berehala, orain arte urratsik eman ez dutenek Bildu eta ezker abertzaleari eginkizun berriak jartzeari ekin diote. Euskal Herrian zabaltzen ari den aukera bururaino eramateko eta denon artean justizian eta herriaren nahiarekiko begirunean oinarrituriko bakea eraikitzeko, guztion parte hartzea beharrezkoa dela ulertu nahi gabe. Dagoeneko, euskal jendarteak argi erakutsi duen bezala, urratsik ez emateko aitzakiak ez dira nahikoak.

Azkenik

- Euskal Herrian bake eta askatasun agertoki bat eraikitzeko aukera dagoelako uste osoa izanik, bide horretan sakontzeko prestutasuna berretsi nahi du ETAk. Zentzu horretan eragile orori egiten diogu deia, konponbidearen alde murgildu dadin eta guztion artean elkarriketa eta negoziatorako esparruak zabal ditzagun.
- Euskal herritarrei eta bereziki ezker abertzaleko gizon-emakumeei, aurreratutakoak ematen duen ilusioa eta arnas berriarekin, ohiko apaltasun eta eskuzabaltasunez, lanean gogor jarraitzeko deia luzatu nahi die ETAk. Erronka handia dugu, lortuko dugu.

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA! GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!
JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!



Euskal Herrian, 2011ko uztailaren 7an

Euskadi Ta Askatasuna
E.T.A.

